


**VI EUSKAL HERRIKO
ESKULANGINTZA AZOKA**

**VI FERIA DE ARTESANIA
DEL PAIS VASCO**

KATALOGOA - CATALOGO

**EREINTZA ELKARTEA - Errenteria
Año 1984 Urtea**



VI EUSKAL HERRIKO
ESKULANGINTZA AZOKA

VI FERIA DE ARTESANIA
DEL PAIS VASCO

KATALOGOA

CATALOGO

AÑO
1984
URTEA

AURKEZPENA

I haz Maiatzean ospatu zen VI Euskal Herriko Eskulangintza Azokari dagokion Katalogoa aurkezterakoan —bereziki LURRA ETA ANTZEKOARI eskainia—, ez dugu bere ondorioaz halako gogoetarik egin gabe utzi nahi, geroari begira, gure kezka zenbait ere aipatu nahi dugularik.

Lehenik diogun, 1984ko Azoka toki berri batetan, aterpean, kokatu izanak, eta iraunaldi luzeagoa eman izanak, Euskal Herrian ematen diren gertaera kultur eta merkatarengan txertaturik jartzen duela urteroko ospakizun honek. Komunikabidek eskaini dioten lekua, artisauek berek aitortu dutenak, jendearengandik izan duen arrerak, bertan eman den salmenta eta lan enkargu goi mailak, lehentxeago aitortu dugunaren lekuko.

Guzti horrek antolaketa honen bidez lortu nahi zena, hots, Eskulangintzaren baliagarritasunaren bidez kultur aberastasun bati eustea, gure aurrekoen sorkuntza jeinua eta gure herriaren nortasunarena, eta guzti horrek gure egunotan adierazi nahi duena, gaurregun iadanik lorpen bat dela esan genezake.

Geroari begira, ordea, gogoan hartzekoa da eskulangintzaren Azoka hau erakunde kultural batek antolatua dela, "amateur" gisa lanean ari den jendez osatua. Eta eskulangintzaren etorkizuna ez dago kultur ekintzabide soiletik konpontzerik, egitura oso baten planteamendutik letorken konponbidean baizik. Horretarako ofizioak erakusteko bidea, produktoak komertzializatzea, ezagupide eta propagandari bideak zabaltzea, forma eta diseinu berriak beharrezko dira. Bistan da, beraz, gisa honetako erantzun orokorra beste era bateko erakunderen, eta artisauen, eskutik etorri behar duela.

Eta bukatzeko, beti bezala, gure esker ona aitortu nahi diegu Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza Kontseiluari, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Erreteriariko Udalari, Aurrezki Probintzial eta Munizipalari, eskaini diguten dirulaguntzagatik. Gure esker ona, halaber, eskuartu duten artisauek eta gainontzekoei. Guzti horiei eskerrak ospatu ahal izan da VI Euskal Herriko Eskulangintza Azoka, eta, era berean, beroiena den Katalogo honen argitalpena ere.

Erretereria, 1985 Apirilak

EREINTZA ELKARTEA

PRESENTACION

A la hora de presentar este Catálogo correspondiente a la VI Feria de Artesanía del País Vasco de Mayo de 1984 —dedicada especialmente al tema de LA TIERRA Y SUS AFINES—, no queremos dejar de hacer algunas reflexiones sobre su desarrollo, a la vez que señalar algunas de nuestras preocupaciones cara al futuro.

En primer lugar habría que destacar que la Feria de 1984, con su nueva ubicación en un recinto cerrado y su mayor duración, ha representado un paso decisivo para la inclusión de esta actividad como algo consustancial al ciclo anual de acontecimientos cultural-comerciales del País. De hecho, el eco despertado en los distintos medios de comunicación, las impresiones recogidas entre los propios artesanos, la masiva asistencia de público, el importantísimo volumen de ventas y pedidos alcanzado, etc., son algunos de los aspectos que avalan lo anteriormente expresado.

Todos estos datos apuntan también hacia la posibilidad de lograr ya en la actualidad, ese objetivo presente en los organizadores desde el primer momento: la simbiosis entre el primitivo carácter utilitario-comercial de la Artesanía y la conservación-potenciación de la riqueza cultural que, como muestra del genio creador de nuestros mayores y de la personalidad de un pueblo, la misma representa en nuestros días.

No obstante, cara al futuro conviene recordar que esta actividad proviene y está organizada por una entidad eminentemente cultural y "amateur"; y que la salida que la Artesanía en general necesita, no puede venir exclusivamente del campo cultural, sino del de un adecuado planteamiento estructural que incluya su potenciación por medio de la enseñanza de los oficios, comercialización de los productos, canales de difusión y propaganda, creación de nuevas formas y diseños, etc. Y es obvio que la respuesta a este reto, corresponde fundamentalmente a otro tipo de estamentos e instituciones, así como a los propios artesanos.

Terminar como siempre haciendo público nuestro agradecimiento a la Consejería de Comercio del Gobierno Vasco, Diputación Foral de Gipuzkoa, Ayuntamiento de Erretereria, y Cajas de Ahorros Provincial y Municipal, por la ayuda económica prestada. Asimismo agradecer la presencia de los artesanos participantes y las colaboraciones de particulares. Todos ellos han hecho posible tanto la celebración de la VI Feria de Artesanía del País Vasco, como la edición de éste, su Catálogo.

Erretereria, Abril de 1985

EREINTZA ELKARTEA

HITZAURREA

Keramikaz hitzegitea, munduaz, lurraz, gizonaz hitzegitea da.

Keramika esatea, lurra, mea, oxidoa, forma, kolorea, atmosfera, sua, hotsa, esatea da.

Betidanik eta nonnahi landu izan du gizonak buztina, baina beronen eza-gupidearen sakonetan murgildu denak ezagutzen du bere zeregin eta konportaera.

Giza izaeraren historiarekin bertatik loturik dago Keramika. Bere sorkuntza eta eboluzioaren isladapen leiala da. Bai ahal dago forma bat sortzea baino gauza ederragorik? baina eta kolorearen eraldakuntza? zenbait nahastura egin eta gero, eta jakineko tenperaturaren ematen diren nabardurak, suaren indarrez hausten diren tonalitateak, buztinez eta urez eginikoari bere iraupena, gogortasuna eta, era berean, bere hauskor izaera damaion su horretan? eman ahal daiteke eraldakuntza horretan edertasun eta misterio handiagorik?

Egokuntzaren unean ematen dira erreakzio fisiokimikoak, orduan hartzen du piezak bere izaera berezia. Beira gaiak, soporteari itsasten zaio, bere inpermealtasuna, bere apaindura aberats eta suabeak ezartzen dizkio.

Gure lurraldeak jakin zuen, jakin, hain zeregin ederra kontu ahal ezinezko buztinoletan eta lantegietan jasotzen, baita garrantzizko industrietan ere.

Lehen lantegiak herriari baliagarri zizkionetan ihardun ohi zuten, pieza erabilkorak eskainiz, hara nola, ontziak, azpilak, txarroak, katiluak, eta abar.

Industrietan pieza askoz finagoak eta dekoragarriagoak egiten zituzten: ontziteriak, bandejak, lanpara oinak, eta abar sortuz, eskulangilearen eta artistaren esku eta irudimenaren sorkuntza bezala.


Gaurregun, guztiz interesaturik eta gogo onez bilatzen ditugu pedarra, txakolin pitxarra eta antzeko artisau lanak, edota aurkitzea zailagoak zaizkigun Pasaiako, Busturiako eta abarreko portzelana piezak.

Baina gaurregun Euskal Herrian ez dezakegu atzoko Keramikaz bakarrik hitzegi. Azken urteotan eman den pizkundeak, keramikagintza mugimenduak indartsu azaldu bait zaizkigu. Itsaropenik sortarazten du gure baitan geroari begira.

Eta gaurregun, atzo bezala, lurra lurra da, baina teknologia aurrera doa, eta gu ezin gaitezke atzean gera. Guzti horrengatik, gure esker ona Ereintza Elkarteari, urtez urte gure Arteren alde lanean jarraitzen duelarik.

ANGELA ETXEBERRIA

KERAMISTA



PROLOGO

Hablar de Cerámica es hablar del mundo, de la tierra, del hombre.

Decir Cerámica es decir tierra, mineral, óxido, forma, color, atmósfera, fuego, sonido.

Desde siempre y por doquier el hombre ha modelado la arcilla pero sólo aquel que se ha metido en las profundidades de su conocimiento, sabe de su quehacer, de su comportamiento.

La Cerámica está estrechamente vinculada a la historia del ser humano. Viene a ser el fiel reflejo de su creatividad y de su evolución. ¿Hay algo más hermoso que el crear una forma? pero ¿y el transformarla al color? ¿el que después de varias mezclas y a una temperatura determinada surjan esos matices, esas tonalidades rotas por la fuerza del fuego, de ese fuego que presta al objeto hecho de tierra y agua su perennidad y su dureza, al propio tiempo que su fragilidad? ¿puede existir más belleza y más misterio en esa transformación?

Es en el momento de la cocción, cuando se producen esas reacciones fisicoquímicas y es entonces cuando la pieza adquiere ese carácter específico. Las materias vitrias se unen al soporte adhiriéndose íntimamente a la tierra, confiriéndoles así su impermeabilidad, y esos lustres tan ricos y suaves.

Nuestra tierra supo recoger este quehacer tan bello en infinidad de alfares y talleres, así como en algunas industrias de importancia.

Los primeros trabajaban sirviendo al pueblo y ofreciendo piezas en su mayor parte utilitarias como eran los cántaros, platos, jarras, katillus, etc.

Las industrias nos mostraban piezas de mayor refinamiento y más decorativas, como vajillas, bandejas, pies de lámpara, etc.; unas y otras no eran sino el producto de la mente y de la mano del artesano y del artista.


Hoy día buscamos con interés y aprecio aquellas piezas artesanales como son la "pedarra" "jarra de chacolí", etc., o aquellas otras más difíciles de encontrar como las porcelanas de Pasajes, Busturia, etc.

Pero hoy en Euskalerría no sólo podemos hablar de la Cerámica de ayer. El resurgimiento en estos últimos años nos motiva a estar esperanzados, ya que los movimientos de ceramistas están surgiendo con mucha fuerza.

Y hoy al igual que ayer, la tierra es tierra, pero la tecnología avanza y nuestro empeño no ha de ser menos. Por ello agradecemos el interés demostrado por Ereintza Elkartea, que año tras año sigue velando por nuestras Artes.

ANGELA ETXEBERRIA

CERAMISTA



VI EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKAREN EGITARAUA

ERAKUSKETA

- EUSKAL BUZTINGINTZA ETA KERAMIKAK. Euskal Herriko eskualde ezberdinetako eltzegintza zaharra, eta Pasai eta Bidasoako portzelana klasikoen piezen erakustegi zabala, Pedro San Cristobal, Gregorio Aramendi, Roberto Lopez de Etxezarreta, Antxon Agirre jaunek eta "Porcelanas del Bidasoa" fabrikak utzitakoak.

HITZALDIA

- KERAMIKAREN LEHENA ETA ORAINA EUSKAL HERRIAN. Hizlaria: Angela Etxeberria, keramista.

FILMEAK

- EUSKAL HERRI MUSIKA, Fernando Larruquert, Javier Agirresarobe eta Jose Angel Rebolledoren pelikula, Bizkaiko Bankuak ekoiztua.
- ANGEL OTAEGI, BILLABONAKO ERREMENTARIA eta GREGORIO ARAMENDI ETA ZEGAMAKO BUZTINOLA, Carlos Knörren dokumentalak, Ereintza Elkartek ekoiztuak.
- BAZTAN eta IKAZKINAK, Xabi Oteroren erreportaiak.
- OLAK, Bizkaiko Histori eta Arkeoloji Museoak egindako erreportaia.
- V EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA 1983, Donostiako HABE-k egindako erreportaia.
- PORTZELANAREN DEKORAPENA, Antxon Agirrerren diapositiba irazkinduak.

IKUSKIZUNAK

- "AZALA TALDEA"-ren ERREZITALA.
- EUSKAL MUSIKATRESNEN ENTZUNALDIA.

DULTZINA, Luis Ojer, Javier Lizarbe eta Javier Beorlegi Tafallako Dultzineroak.

ALBOKA, Arratiko Leon Bilbao eta Maurizia Aldeiturriaga.

TXISTUA, Baztango Maurizio Elizalde eta Felix Iriarte.

TRIKITIXA, Azkoitiako Egurrola eta Epelde.

PROGRAMA DE LA VI FERIA DE ARTESANIA DEL PAIS VASCO

EXPOSICION

- ALFARERIA Y CERAMICA VASCAS. Amplio muestrario de piezas de la ollería tradicional de las distintas zonas del País, y de las porcelanas clásicas de Pasajes y del Bidasoa, cedidas por los señores Pedro San Cristóbal, Gregorio Aramendi, Roberto López de Etxezarreta, Antxon Agirre y la fábrica "Porcelanas del Bidasoa".

CONFERENCIA

- AYER Y HOY DE LA CERAMICA EN EUSKAL HERRIA. Ponente: Angela Etxeberria, ceramista.

PROYECCIONES

- EUSKAL HERRI MUSIKA, película de Fernando Larruquert, Javier Agirresarobe y José Angel Rebolledo, producida por el Banco de Vizcaya.
- ANGEL OTAEGI, BILLABONAKO ERREMENTARIA y GREGORIO ARAMENDI ETA ZEGAMAKO BUZTINOLA, documentales de Carlos Knörr, producidos por Ereintza Elkartea.
- BAZTAN e IKAZKINAK, reportajes de Xabi Otero.
- OLAK, reportaje realizado por el Museo Histórico y Antropológico de Vizcaya.
- V EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA 1983, reportaje realizado por HABE de Donostia.
- DECORACION DE LA PORCELANA, diapositivas comentadas de Antxon Agirre.

ESPECTACULOS

- RECITAL DE "AZALA TALDEA".
- AUDICION DE INSTRUMENTOS AUTOCTONOS.

DULZAINA, Luis Ojer, Javier Lizarbe y Javier Beorlegi, Dulzaineros de Tafalla.

ALBOKA, León Bilbao y Mauricia Aldeiturriaga de Arratia.

TXISTU, Mauricio Elizalde y Félix Iriarte de Baztán.

TRIKITIXA, Egurrola y Epelde de Azkoitia.

PARTE HARTURIKO ARTISANAK

ARTESANOS PARTICIPANTES

ZURA - MADERA

KAIKUAK, OPORRAK, ABATZAK, ESKALAPROIAK... (Útiles tradi- cionales de madera)

Francisco Larretxea (Sunbilla)
Domingo Etxandi (Errazu)

UZTARRIAK (Yugos)

Saturnino Vidan (Ulbarri-Harana)
Eulogio Iraola (Asteasu)

ESKUAREAK, SEGA GIRTENAK (Rastrillos y mangos de guadaña)

Agustín Legorburu (Segura)

LANABESEN GIRTENAK (Mangos de herramientas)

Eustaquio Goñi (Oitz)

ERLAUNTZAK (Colmenas)

Joxe Albizu (Zegama)

KATEAK (Cadenas de madera)

Ramón Aduriz (Erreterria)

UIPELGINTZA (Tonelería)

José Fernández (San Adrián)
Pablo Iturgaiz (Pasai Antxo)

KARRAKAK, ORRAZIAK, ZALIAK (Matracas, peinetas, cucharas)

Joxe Mari Urroz (Oitz)

ERLOJUAK (Relojes)

Angel Mendiburu (Azpilikueta)

MOSAIKUGINTZA (Marquetería de mosaicos)

Isaac Lanchas (Hondarribia)

ITSASUNTZIEN MODELOGINTZA (Modelismo naval)

Joseba Atxabal - Jon Laka (Lekeitio)

ARGIZAIOLAK, KUTXAK, ATABA- KAK,... (Talla tradicional vasca)

Joxe Mari Arriaga (Markina-Xemein)
Antton Mendizabal (Oiartzun)
Fermín Anda (Bakaikoa)

HALTZARIGINTZA (Artesanía del mueble)

José Fito - Itziar Orube (Zarautz)

IRUDIAK, HAUSPOAK... (Talla di- versa)

Ricardo Etxeberria (Abaltzizketa)

MAKILAK (Bastones)

Inaxio Oyarzabal (Hondarribia)
* Iñaki Alberdi (Irun)
Félix Martínez (Erreterria)

OTARGINTZA ETA BELARKI ZUNTZAK CESTERIA Y FIBRAS VEGETALES

GAZTAIN ZUMITZEZKO OTAR- GINTZA (Cestería de fleje de cas- taño)

Agustín Antxordoki (Igantzi)
Juan Unzueta (Durango)

ZUME OTARGINTZA (Cestería de mimbre)

Pedro Jesús Castillo (Azkoien-Peralta)

IHI ESKULANGINTZA (Artesanía del junco)

Galparsoro anai-arrebak (Segura)

TXILAR ERRATZAK (Escobas de brezo)

Fructuoso Murgiondo (Narbitza-Nar-
baja)

BASTEAK (Albardas)

Domingo Goiburua (Idiazabal)

ESPARTZINAK (Alpargatas)

Leandro Etxebeste (Hondarribia)

OIHALKI ETA LARRUA TEXTIL Y CUERO

GORUETA, GALTZERDIAK (Hila- do y calcetines de lana)

Castora Agesta (Etxalar)

BOLILLOAK (Encaje de bolillos)

Joaquina Varela (Erreterria)
Quiteria Millan (Erreterria)

SAREGINTZA (Redería varia)

Dionisio Usarraga (Hernani)

ERREBOTEKO GOANTEAK (Guan- tes de rebote)

Florentino Ibarra (Labaien)

BURNI ETA BESTE METALKIAK

HIERRO Y OTROS METALES

ITSAS BURDINLANTZA (Forja naval)

Javier Salaberria (Herrera)

BURDINLANTZA ARTISTIKOA (For- ja artística)

Jesús Juanto (Zangotza)
Francisco Martín (Elgorriaga)

PIKAILADURAGINTZA (Esmalta- dos en cobre)

Jorge Gamelo-Diez (Zarautz)

BESTE ESKULANGINTZAK OTRAS ARTESANIAS

*** ADARREN TAILAGINTZA (Talla en cuerno)**

Juan Antonio Alaña (Menagarai)

ARGIZAIGINTZA (Cerería)

Miguel Azkarate (Tolosa)

TALOOK (Talos)

Loiarte-Elizalde sendia (Zubieta)

KONFITERITZAREN PRODUKTU JATORRAK (Productos típicos de confitería)

GAI NAGUSIA 1984.
LURRA ETA ANTZEKOAK
TEMA ESPECIAL 1984.
TIERRA Y AFINES

LOHIA - BARRO

ADOBAK (Adobes)

- * Gumersindo Elvira (Mendabia)

BUZTINGINTZA (Alfarería)

- Gregorio Aramendi (Zegama)
- * Federico Garmendia (Narbitza-Nar-baja)

KERAMIKA (Cerámica)

- * Montxo Ruiz Cabestany - Marta Be-rraondo (Arizkun)
- * Javier Irisarri - Alicia Oses (Auzperri-Espinal)
- Xenpelar Taldea (Errenteria)

BEIRA - VIDRIO

BEIRA PUZTUA (Vidrio soplado)

- * Luis eta Santiago Arias (Bilbo)

BEIRATEAK (Vidrieras)

- * Xabier Del Río (Iruñea)

HARRIA - PIEDRA

BARRENARIAK (Barrenadores)

- * Txomin Elorza - Ignacio Iriondo (Men-daro)

HARGINTZA (Cantería)

- Cesareo Soule (Arizkun)
- * G. Pedro Fernández (Etxalar)

HARZURIGINTZA (Tallado de ala-bastro)

- * Jesús Pérez Marín (Zentroniko-Cintrué-nigo)

*OHARRA: * Ikurra ez daramaten arti-sauen berri-laburrak ez dira Katalogo honetan agertzen; izan ere, aurreko Azokan Katalogoetan sarturik bait daude.*

NOTA: Los artesanos que no llevan aste-risco no aparecen reseñados en el presen-te Catálogo, al estar incluidos ya en los Catálogos de Ferias anteriores.

ARTISAU ETA LANGINTZEN BERRI-LABURRAK

RESEÑAS DE ARTESANOS Y ESPECIALIDADES

Artisaua: IÑAKI ALBERDI SAGARDIA

Jaioteguna: 1949, Martxoak 22
Fecha de nacimiento:

Helbidea: (Lantegia) Descarga Kalea, 6
Domicilio: IRUN (Gipuzkoa)

Tel.: 62.80.47



Aurkezpen gisa:

Bere lehen pausoak industria maisutza bideetatik ematen dituen arren, taila artistikoaren zereginari emanik ziharduten bere aita eta anaia zaharrenaren eskutik, familia giro honetan, sortuko zaio egurlanetarako afizioa artisau gazte honi.

1980 urtez geroztik hasiko da, beraz, bide honetatik lehen pausoak ematen; Laburdiko "makila"ri buruzko tradizio datoak biltzen ditu, bai Baionako Euskal Museoa jaso arakatzuz, bai Laburdi eta Baztango artisau zaharrendi eskuratutako datoez baliatuz. 1983an, makilagintzaren prozesoa zehazki aztertu eta gero, artisautza lan honetan abiatzen da, autodidakta gisa, eta egun bertatik bizi da.

Enkarguz edo bere familiak jadanik prestatuak zeukan merkatal sarearen bidez saltzen du.

Otros datos:

Vástago de una familia dedicada a la talla artística en las personas de su padre y hermano mayor, será en ese entorno familiar donde este joven artesano adquirirá su afición por los trabajos relacionados con la madera, aunque sus estudios y primeros pasos profesionales los dé en algo tan diferente como es el campo de la maestría industrial.

Será pues a partir de 1980 cuando empiece a tomar contacto y a recopilar datos en torno a la "makila" tradicional laburdina, a través del material existente en el Museo Vasco de Baiona, y de sus contactos con viejos artesanos de Laburdi y Baztán. En 1983, después de un minucioso estudio del proceso de su fabricación, se inicia de forma autodidacta en esta artesanía, de la que vive en la actualidad.

Vende su producción a través de encargos y de la red comercial que ya tenía montada su familia.

MAKILAK

"Makila", edo euskaldunon eskumakila, oraintsu arte euskaldunon jazkerarekin bat eginik egon da, batez ere Ipar Euskal Herrian, non gai honi buruzko artisautza aspaldiko usarioa ezaguna baita.

Eskumakilak, dotorea eta beldurrik sor dezakeana era berean, mendian bertan hasera duen lan mantso eta neketsua du berekin. Mizpira edo gaztainondoan hautatzen ditu artisauak bere egurrak, eta —gutxienez urte betez lehenago—, labainaz halako ebaki batzuk egiten dizkio, eta ondoren zapi batez estaltzen, euria bertatik sar ez dadin. Bere barnean daraman izerdiak makilaren erliebe edo dibujoak osatuko ditu. Egurra neguan eta hilbeheran moztu ondoren, berotuz zuzenduko du, segidan koloreztatzeari ekiteko kare bizian egurra sartuz.

"Makila"ren bi ertzak arma bi beldurgarri gertatzen dira. Behe aldean, latoizko kaskilu batez, eskuz landua, hornitzen da, bere barne baitan berun salda sartzen da. Bere goieran, girtenaz estalia, altzairuzko punta darama. Girten edo heldulekua larruz txirikordatutako tubo batez osatua dago, eta adar bola bat darama gainean; girten honetan artisauak, bere jakitateak edo jeinuak dioenaren arauera, esaldiren bat grabatzen du.

Agintemakila bezala, agintearen ezaugarri bezala ere erabili izan da. Ohorezko Agintemakila hauetan heldulekua zilarrezkoa edo alpazkoa izan ohi da.


BASTONES

La "makila" o bastón vasco ha sido hasta épocas recientes algo consustancial a la indumentaria de nuestras gentes, especialmente en la Euskal Herria continental donde existe una larga tradición artesanal al respecto.

Este bastón, elegante y temible a la vez, requiere de un proceso de fabricación lento y trabajoso que se inicia en el mismo monte. Elegida la vara de níspero o castaño, el artesano procede —al menos un año antes de cortarla— a practicarle unas incisiones a punta de navaja, y a forrarla con un trapo a fin de que la lluvia no penetre en las mismas. La savia que corre por el interior conformará los futuros relieves o dibujos del bastón. Una vez cortada la vara, en invierno y en luna menguante, la enderezará al calor para seguidamente proceder a teñirla, a base de mantenerla en cal viva.

Las dos extremidades de la "makila" son dos armas temibles. La inferior o porra se remata con un casquillo de latón repujado a mano, en cuyo interior se ha vertido una colada de plomo. La superior va armada con una punta de acero oculta dentro de la empuñadura. En esta empuñadura que está formada por un tubo recubierto de cuero trenzado y coronada por una bola de cuerno, el artesano graba la sentencia o proverbio que le sugiere su saber o ingenio.

La "makila" es usada también como símbolo de autoridad o distinción hacia las personas. En éstas, llamadas Makilas de Honor, la empuñadura suele ser enteramente de plata o alpaca.



MAKILA

Artisaua: JUAN ANTONIO ALAÑA ULIBARRI

Jaioteguna:
Fecha de nacimiento: 1950, Azaroak 6

Helbidea: "Los Riveros" Baserria,
Domicilio: Aretxabala Hauzoa
MENAGARAI (Araba)



Aurkezpen gisa:

Mekaniko da ogibidez eta artisau autodidakta. Ttikitandik era desberdineko eskulanak egiteko izan duen joera, 1973 urtez geroztik, eta soldaduska amaitu eta gero, adarrez osatutako eskulangai eta tailak egiteari ekiten dio.

Basoak, soinu-adarrak, zaliak, segapotoak, eta abar (artzantza kulturarekin zer ikusia duten tresnak), lantzen ditu. Artisau honek "hobby" gisa dihardu. Bere lanak sutan tailatzen ditu eta, gehienbat, bere arte lanak lagun eta ezagunen artean banatzen.

Otros datos:

Mecánico de profesión y artesano autodidacta, su afición desde niño por los trabajos manuales de diverso tipo empieza a concretarse a partir del año 1973 y una vez cumplido el servicio militar, en la confección y tallado de objetos de cuerno.

Vasos, cuernos para tocar, cucharas, vainas para la piedra de aguzar la guadaña o "segapoto", etc., son algunos de los productos (de claro enraizamiento con la cultura pastoril) realizados y artísticamente tallados a fuego por este artesano, que trabaja por puro "hobby" y que generalmente los reparte entre amigos y conocidos.

ADARREN TAILAGINTZA


Animalien adarraz, eta batez ere abelgorrien adarraz, baliatuz, tresnak egiteko joera guztiz aspaldikoa da, eta artzantza kulturarekin loturik egon den eskulangintza. Artzaiak, bakardadean ematen dituen ordu luzetan, eskulan desberdinak burutzen ditu. Hilea, artilea, txarrantxatu eta iruntzen du ondoren galtzerdiak egiteko; gaztagintzarako edo bere otordutarako tresnak prestatzen ditu, eskumakilak, zaliak, basoak eta hainbat egurrezko edo adarrezko tresnak landu ohi ditu.

Azken gai honetan tailak egiteko teknika ezin daiteke errazagoa izan, eta lanaren edertasun maila egilearen esku soiletan gelditzen da. Bilboko mataderoak damaizkion adarrez osatzen ditu artisau honek bere lanak. Bere mamia hustu eta desinfektatu eta gero egin beharrezko lanaren neurrira ebakitzen du eta ondoren azalera labainaz lehuntzen. Dibujoa markatu eta gero berorren tailagintzari edo grabaketari ekiten dio, sutan goritutako ezten edo puntzoi bat arkatzaren gisa dabilarik.

TALLA EN CUERNO

El aprovechamiento de los cuernos de animales, principalmente de bovinos, para la fabricación de diversos útiles es una tradición que arranca en épocas muy lejanas, habiendo constituido la misma una parte importante de la cultura pastoril. El pastor durante las largas horas de soledad realiza diversos trabajos manuales. Carda e hila la lana para luego hacer media; confecciona útiles para la elaboración del queso o para comer; y en fin talla bastones, cucharas, vasos y diversos objetos en madera y cuerno.

La técnica del tallado de este último material no puede ser más sencilla, quedando por tanto en manos del ejecutor la mayor o menor belleza final del objeto. Este artesano utiliza como materia prima, cuernos de vacuno suministrados por el matadero de Bilbao. Vaciada la médula y desinfectado el cuerno, se corta a la medida del objeto a confeccionar, puliéndose a continuación sus superficies con la navaja. Una vez marcado el dibujo a realizar se procede a la talla o grabado del mismo, valiéndose para ello de un punzón incandescente que se maneja de forma similar a un lápiz.



Artisaua: GUMERSINDO ELVIRA AYESA

Jaioteguna:
Fecha de nacimiento: 1908, Urtarrilak 13

Helbidea: Cara Logroño, 24
Domicilio: MENDABIA (Nafarroa)



Aurkezpen gisa:

Nafar Erribeherako lautadetan, Ebro ibai inguruan, jaioa; lurralde buzintsu ugari dagoen parajeetan, eraikintzan sarri erabiliko dena hain zuzen. Hogeita lau urte dituela hasten da lasta-buztinezko adreilu prestakuntza ofizioa ikasten bere aitarekin batera. Honetaz gain igeltsero lanari, eta batez ere nekazaritza lanari, jarraitzen zion. Eskulangintza honen produzioa etxe beharretara zuzentzen zuten (etxebizitzak, borda-gisakoak, harresiak, eta abar egiteko) inoiz, 1924 urte aldi hartan, adoben zientoa zazpi errealetan saltzen bazuten ere.

Bere iaotasunaren adierazgarri bezala, esan beharra dago, besteak beste, musikari bikaina ere badela.

Otros datos:

Nacido en las tierras llanas de la Ribera navarra próximas al río Ebro, en una zona caracterizada por la existencia de tierras arcillosas propias para ser aprovechadas como elemento de construcción, será a la edad de 24 años cuando inicie junto a su padre el aprendizaje de la elaboración de ladrillos de adobe. Este oficio lo compaginaban con otros trabajos de albañilería y también con las labores propias del campo, principal fuente de existencia. La producción por tanto, la destinaban en su mayor parte a las necesidades de ámbito familiar (construcción de viviendas, cobertizos, muros,...) aunque también vendían los adobes a razón de siete reales el ciento, allá por el año 1924.

Señalar asimismo como otra de sus múltiples facetas, la de haber sido un excelente músico.

ADOBAS


Lurralde erdi-lehorren berezkoak diren buztin lurrak, lehorteak jotzen duenean ezin landuzkoak, berebiziko plastizitatea lortzen dute uretan. Horregatik eraikintzarako baliagarri zitezkeen buztin bloke artifizial batzu egiteari antzinatik ekin izana ez da batere harrizkoa. Hasera hartako Asia eta Egiptotik, bere erabilera europar mendebalera iritsi zen, eta, horrenbestez, baita Iberiar Penintsulara, zeltiar herrialdeen etorrerarekin batera, seguraski.

Adobaren prestaera ibai ondoan egin ohi da, terrenoa lau koadro edo zatitan banatuz, prozesorearen pausunearen arabera erabiltzen direnak. Buztina uretan nahastean, egokiro astinduta lastoa gehiatzen zaio, eta masa guzti hori ondo zapaltzen halako homogeneitasuna lortu arte. Masa guzti hau egurrezko molde batzutan sartzen da, eta bertan hartzen dute adoba blokearen berezko forma. Moldetik atera eta gero, blokeak aide libreak, eta eguzkitan, egunetan uzten dira lehor daitezen. Ondoren eraikuntzan erabiltzeko behar duen sendotasuna lortuko dute. Adoba egoste prozesu batetan jarriz geroz, adreilu errefraktariarra lortzen da.

ADOBES

Los suelos arcillosos propios de las tierras semi-áridas, tan coherentes que apenas pueden cultivarse cuando están secos, adquieren una extraordinaria plasticidad en contacto con el agua. Por ello no es de extrañar que ya desde antiguo estas características fueran aprovechadas para la confección de bloques térreos artificiales, que sirviesen para las tareas de construcción. Desde el Asia primitiva y el antiguo Egipto, su utilización pasó al Occidente europeo y con él a la península Ibérica, probablemente con la llegada de los pueblos célticos a la misma.

El proceso de elaboración del adobe se lleva a cabo en terrenos próximos a los ríos, dividiéndolos en cuatro cuadrados o parcelas, que se van trabajando según las distintas fases del proceso. Mezclada tierra con agua, y después de batida convenientemente añadida paja seca, se va pisando toda la mezcla hasta conseguir una masa homogénea. Esta masa se coloca en unos moldes de madera, donde adquiere la forma de bloque paralelepípedo propia del adobe. Sacados fuera del molde, los adobes son puestos a secar al aire y al sol durante varios días, tras los cuales habrán adquirido la dureza y cohesión necesarias para su utilización (construcción de viviendas o similares y hornos de pan). Sometido a un proceso de cocción, el adobe puede utilizarse también como ladrillo refractario.



MOLDEA ETA ADOBA

Artisaua: FEDERICO GARMENDIA
MARTINEZ

Jaioteguna: 1922, Azaroak 20
Fecha de nacimiento: ELOSU (Araba)
Helbidea: Saenz de Quejana Kalea, 1 - 3º C
Domicilio: GASTEIZ (Araba)

Tel.: 25.80.89 - (lantegia) 27.54.96



Aurkezpen gisa:

Artisau honen bizitza betidanik buztzingintzaren langintza zaharrari loturik egon zaio. Elosuko Ollerias hauzoan, arabar keramika herrikoia- ren lekune garrantzitsuenetakoan, jaioa; zortzi semealabeko familiakoa, 10 urte dituenean etxetik irtetzen da Frutuoso Larrinoa maisua- ren buztinolan ikasi asmoz. Lehen garai horre- tan hamar edo hamabi orduen lanaldia izan ohi zuen mantenuaren truke; gero eguneko pezeta bat irabaztera iritsi zen. Buztinola Ara- bako Aguraina aldatzen dute 1936an, bi urte egingo dituzte bertan. Ondoren bere lan lekua Narbaitzan finkatzen du 1977 urtera arte, or- duan itxiko baita erabat lantegia.

Gaurregun Gasteizko Arte eta Lanbide eskolan dihardu irakasle bezala, eta artisautza moeta honetako produktoen salmentarako gordailua ere berekin du.

Otros datos:

La vida profesional de este artesano ha estado desde siempre, íntimamente ligada al viejo oficio de alfarero. Nacido en el barrio de Ollerías de Elosu, uno de los centros de producción más importantes de la cerámica popular alavesa, y miembro de una familia de ocho hermanos, a la edad de 10 años sale de casa para colocarse como aprendiz en el alfar del maestro Frutuoso Larrinoa. Este período de aprendizaje comprendía en los primeros años una jornada diaria de 10 a 12 horas de trabajo a cambio de la manutención, para posteriormente pasar al cobro de una peseta por día trabajado. Trasladado el alfar en 1936 a Salvatierra de Alava, permanecen dos años en esta localidad, para posteriormente fijar su lugar de trabajo en Narbaja, donde permanecerán hasta 1977, fecha en que se cierra definitivamente el taller.

En la actualidad sigue ejerciendo el oficio como profesor de la Escuela de Artes y Oficios de Gasteiz, a la vez que mantiene un almacén dedicado a la comercialización de productos relacionados con esta artesanía.

BUZTINGINTZA

Euskal Herriko lurralde zabaletan zehar egunez egun ia denak desagertuz joan diren buztinolen artean, Narbaitzakoa izan da bere lanari azken orduan utzi dioeneta- riko bat. Bertako buztingile maisuen esku- tatik etxeetako tresneria ugari sortu izan da. Era eta erabilera desberdinetako kon- keta eta katiluak, txarro arabar, gipuzkoar, txakolinetakoak ala bizkaitarrak, azpilak, gatzontziak, lorontziak, ganadu hilketata- rako barreinuak, lurraspilak, ohea bero- tzeko botilak, xarroiak, eta abar ikus zite- keen bertan. Bertako lanen amaiera era desberdinekoa izan zitekeen, hara nola opiltxo gisarakoa, beira gisakoa, edo es- malte estamnifero zuriz hornitua, eta guzti hori dekorazio aberatsagoa ala xumeagoa eraman zezakeelarik.

Lanen prestakuntzarako, lehenik buztina bertako lurraldeetatik atera, eta ondoren berau astiro eta neke askoren ondoren lantzen zuten, behar bezalako buztin bigun eta erabilkorra izan zedin. Buztinez eginiko piezak egosteko labean sartu aurretik aire librean lehortu ohi ziren. Inpermeabiliza- zioa eta ondorengo egoste lana garran- tzizkoak ziren, beronen baitan bait zegoen hainbeste ordu eta nekeren lan fruitua.

ALFARERIA

Dentro del paulatino proceso de desapa- rición que ha afectado a la casi totalidad de los alfares populares existentes todavía no hace muchos años en amplias zonas de Euskal Herria, el de Narbaja ha sido uno de los últimos en dejar de funcionar. De las manos de sus maestros alfareros ha salido una variada gama de artículos destinados al abastecimiento normal de los ajuares domésticos. Tazones y escudi- llas de diversos tamaños y usos, jarras alavesas, guipuzcoanas y de chacolí o viz- cainas, saleros, barreños para la matanza, tinajas para los embutidos, caloríferos o botellas para calentar la cama, platos, ollas, macetas, jarrones, centros de mesa, etc., son algunas muestras de una pro- ducción cuyo acabado podía variar desde el sólo bizcochado, al vedrío, o al esmalta- do estannífero blanco, a la vez que podía incluir una decoración más o menos sencilla.

El proceso de elaboración se iniciaba con la extracción de las tierras de un yacimien- to arcilloso de la propia localidad, a las que había que someter a un proceso lento y trabajoso hasta convertirlas en barro elástico y moldeable. Tras el modelado o torneado de las piezas, éstas se dejaban secar al aire antes de proceder a su im- permeabilización y ulterior cocción en el horno; operación ésta sumamente deli- cada y de la que dependía el fruto de muchas horas de trabajo.



JARRILLO



CANTARILLO



JARRO

Artisauak: MONTXO RUIZ CABESTANY eta MARTA BERRAONDO LAHUERTA

Jaioteguna: 1960, Maiatzak 7
Fecha de nacimiento: 1961, Ekainak 17
DONOSTIA (Gipuzkoa)

Helbidea: Berroa-Beltza Baseria
Domicilio: ARIZKUN (Nafarroa)

Tel.: (Donostia) 27.76.38

Aurkezpen gisa:


Era bateko ala besteko eskulanetarako zaletasuna bien baitan oso goiz emaltzen bada ere, keramikarekiko harremana, 1978an, Geronako Bisbal herrian, Dolores Ros irakaslearen gidaritzapean eginiko ikastaroan, finka genitzake. Gertaera hau artisautza artistiko baten ibileraren abiapuntua izango da, bakoitzak bere bidetik haseran, eta elkarturik gero, landuko dutena Donostian lehenik eta Arizkuneko gero. Ibilera honen baitan gogoan hartzekoa da Marta Berraondok 1980an, Arte Plastikoen Lehiaketa Nazionalan, keramikaren sailean, irabazitako bigarren saria.

Gaurregun langintza honetatik bizi dira. Bere lan ugari eta desberdinak dendetan, feriatan, eta enkar-guz saltzen dituzte. Guzti hori nortasun bereziz landuz, ikerkuntzari jarraituz, nor bere diseinu propioz sortuz, eta erakusketetan ezagutaraziz.

Otros datos:

Aunque su afición por los trabajos manuales de uno u otro signo se inicia en edad temprana, su contacto con el mundo de la cerámica se produce en el año 1978, en la localidad gerundense de La Bisbal, donde ambos asisten a un cursillo de gres a cargo de la profesora Dolores Ros. Este hecho será el punto de arranque de una trayectoria artístico-artesanal —en una primera fase de forma individual y posteriormente conjunta—, ubicada esta última primero en Donostia y desde hace algunos años en Arizkun. Dentro de esta trayectoria, hay que destacar el 2º premio del Certamen Nacional Juvenil de Artes Plásticas, modalidad cerámica, logrado por Marta Berraondo en el año 1980.

En la actualidad viven exclusivamente de este trabajo, cuya variada producción venden a través de tiendas, ferias y por encargos, cultivando a la vez una faceta más personal y de investigación, basada en diseños propios y exclusivos que dan a conocer a través de exposiciones.



KERAMIKA

Keramikagileren deitura, zehaztapenen bat edo beste barne, batez ere sorkuntza lanari atxiki zaion buztinaren artisau-artisten belaunaldi berriari eman ohi zaio. Alde honetatik, tradizioari jarraiki buztin-gile den ofizioarengandik bereizten da. Gure lurraldean eman den industriakuntza bizia, eta honek berekin nekazal gizarte girotik gizarte hirirtatu batetara ezarraziz duen aldaketak, kontsumo joera berriak go-goan hartuz, halako etena ezarri du keramikaren zereginean. Lehengo forma eta usadiora lan egiten zuten buztinolak itxi egin dira, eta ez da aipatu bi mundu horien arteko loturarik sortu.

Gaurregun produktu "beroak" kontsumitzeko dagoen joerak, standakuntza eta industriaren produzio hotza baztertuz doana, Euskal Herrian keramika mugimendu indartsu eta zabala sortarazi du; bere nortasunaren jabe izatearren lehia bizi bizian diharduen mugimendua, lehengo keramika zaharra gogoan hartuz, egungo behar eta eskabideei erantzuten ahalegintzen dena. Era honetan, sorkuntzaren ikerketa lana ez da forma berrien aurkuntza soilera zuzentzen. Horretaz gain buztinen eta esmalteen alkimia berri baten esperimentazioan dihardute.



CERAMICA

Aunque con diversas matizaciones, el término de ceramista suele aplicarse generalmente a las nuevas generaciones de artistas-artesanos del barro —con su labor fundamentalmente de creación—, como contrapunto al tradicional oficio de ollero o alfarero. El rápido proceso de industrialización habido en nuestro suelo, y el consiguiente paso de una sociedad rural a otra urbana con sus nuevas pautas de consumo, ha producido un corte en el quehacer cerámico; al cierre de los viejos alfares, con su producción tradicional en cuanto a las formas y usos, no ha sucedido en general una transmisión conjunta ni una continuación en el trabajo entre estos dos mundos.

La actual revalorización del consumo de productos "calientes", sacados directamente de la naturaleza, frente a la standarización y el frío industrial, ha hecho surgir con fuerza un amplio movimiento de ceramistas por todo Euskal Herria; movimiento que pugna por encontrar unas señas de identidad, que conectando de alguna forma con nuestra tradición ceramista, dé a la vez respuesta a las necesidades y exigencias actuales. En este sentido, su investigación creativa se orienta no sólo a la búsqueda pura y simple de nuevas formas, sino también a la experimentación de una nueva alquimia de los barros y los esmaltes.

Artisauak: XABIER IRISARRI IRRUTIA eta ALICIA OXES NAVAZ

Jaioteguna: 1934, Urtarrilak 22
